



## MAÑANA GOODBYE

CRUZA MARTE-ren filmea

Garai bateko tabako fabrika, produkzio moduen aldaketak bultzatuta, gaur egungo Nazioarteko Kultur Zentroaren bilakaera ikertzen duen 12 kapituloko seriea da. Zelatan, bi galdera garrantzitsu: lanari dagokionean, zer behar dugu iraganetik? eta, nola eta nondik hitz egin memoriaren inguruan?

Tabakalera galdera hau eta beste hainbaten ikur da, eta eraikineko espazio txiki bat, Sotoa, bideratu du proiektu hau hartzeko. Bertan, ikus-entzunezko instalazio moduan erakutsiko da seriea. Hile erdialdero kapitulu bat gehituko da, bere irekieratik hasi, irailaren 11an, eta 2016ko irailararte. Proiektua ekintza publiko programa batekin osatuko da.

### 2. Kapituloa (14'10")

#### Multzo-inpresioa, bakardade-inpresioa

Ez nau behin eta betirako uzten. Nik zenbait neurri hartu ditut, ordea. Bere argazkiak eman nizkion, "bera" agertzen den argazkiak, molde zaharrak zaintzen dituen zentro bati, bazter utzitako usadioen eta boladaz pasatako ohituen geriatiko bati. Ez dut zeharo ahaztu nahi. Distantzia behar dut, besterik ez. Nahikoa dut beira-arasa polit batek ematen duen axolagabetasunarekin.

Horren barruan, bata bestearen atzean, ilaratan, launaka, taldeka edo nahi bezala, bere argazkiak, bere irudiak, itsusia eta ederra partekatzen, zaharkitutako kategorien artean. Galdutako analogien katalogatzaile baten zera esan dit, asteartetik igandera zabaltzen dituela atea zentroak, eta jendeak, ohitura zaharren aurrean paratuta, beira-arasetan erakusten baitira latak sardinak balira bezala, nostalgia sadikoarekin erreakzionatzen duela.

*Nostalgia sadikoa.* Zer da hori?

"Sentipen kontrajarrien" aditu aleman batek argitu dit auzia. Nostalgia sadikoa sortzen da baldin eta ezinezkoa bazaizu iragana irudikatzea, ez bada osagai-multzo gisa, bata bestearen gainean pilatuta daudenak, nola egoten diren pilatuta opariak azoketako tiro-jolasetan. *Die sadistische Nostalgie vergegenwärtigt die Vergangenheit durch das Visier des Scharfschützengewehrs.* ("Nostalgia sadikoak iragana oroitzen du fusil baten begitik so egingo balio bezala).

Godardek, Jean Pierre Léaud-en bidez, *La Chinoise* filmean, zera esan zuen Lumière-i buruz, akaso, hura izan zela "azken margolari inpresionista". Beste hainbatetan bezala, itsaso zabalean arrantzan dabil Godard, arraste-sarearekin. Lantegitik ateratzen diren langileak, zinemaren historiari hasieran eman zion irudi ospetsu hartan, ez ziren aktore bilakatu, Didi-Hubermanek adierazi bezala; aitzitik, inpresio-pintzelada bihurtu ziren. Multzo-inpresio batean preso, zeina proportzionala baita, alderantziz, ikusten dituenaren bakardade-inpresioarekiko. Rear Window. Inpresio sadikoa.

Edonola den, bizitzan, ezertxo ere ez da *zehazki horrela*. Ezta hau berau ere. Azken batean, inpresioez ari gara, esan nahi baita, egitate, eragin eta nahitasun banaz, denak ere elkartuta, kolpe gisa. Topo egitearen bizipen bat, beti mugitzen baita egiazki ilusiozkoa den batuta baten erritmoan. Horrela, inpresio ororekin batera doazen moduek, eta zeintzuen ondorioz bakartuta sentitzen baikara, gotortzat jotzen dugun multzo baten aurrean (edo zeintzuen ondorioz multzo sentitzen baikara, bakartizat jotzen dugun beste baten aurrean), tentu-ekintza bat dakarte, ez hainbeste gertutasun-maila batean (distantzia batera) osatuko (edo finkatuko) dugun beste horrekiko, ezpada, areago, geure kokalekuarekiko berarekiko, bizitzearen sare beti konplexu honetan. Sinestea, ikusteko. Maitatzea, bizitzeko.



## MAÑANA GOODBYE

Un film de CRUZA MARTE

Serie de 12 capítulos que indaga el cambio de modelo productivo por el cual la antigua fábrica de tabacos se convirtió en el actual Centro de Cultura Internacional. Al acecho, dos grandes interrogantes: ¿qué necesitamos del pasado cuando se trata de trabajo? y ¿cómo y desde dónde se puede hablar de memoria?

Tabakalera encarna estas y otras muchas cuestiones, sin perjuicio de las cuales ha destinado un pequeño espacio en el centro, la Bodega, en el que la serie se expondrá a modo de instalación audiovisual, añadiéndose un capítulo a mediados de cada mes, desde la inauguración el 11 de septiembre de 2015 hasta septiembre de 2016. El proyecto se acompañará con un programa paralelo de actividades públicas.

### Capítulo 2 (14'10")

#### Impresión de conjunto, impresión de soledad

No acaba de dejarme. Pero yo he tomado ciertas precauciones. Doné sus fotos, las fotos en las que sale “él”, a un centro dedicado a la conservación de la vieja usanza, un geriátrico de hábitos abandonados y costumbres venidas a menos. No es que quiera olvidarle por completo. Simplemente necesito distancia. Me basta con la indiferencia que otorga una bonita vitrina. Y en su interior, una detrás de otra, en hileras, en combinaciones de cuatro, en grupos o como se quiera, sus fotos, sus imágenes, repartiéndose lo horrible y lo hermoso por entre categorías obsoletas.

Me dice un catalogador de analogías perdidas que el centro abre de martes a domingo y que la gente, cuando se halla frente a las viejas costumbres, expuestas en esas vitrinas como sardinas a la parrilla, reacciona con sádica nostalgia.

*Sádica nostalgia.* ¿Qué es?

Una especialista alemana en “sentimientos encontrados” me aclara esta cuestión. La nostalgia sádica surge de la imposibilidad de concebir el pasado si no es a modo de conjunto de elementos hacinados unos con otros, como en un puesto ferial de tiro al pato. *Die sadistische Nostalgie vergegenwärtigt die Vergangenheit durch das Visier des Scharfschützengewehrs.* (“La nostalgia sádica rememora el pasado a través de la mira de un fusil”).

Godard, vía Jean Pierre Léaud en *La Chinoise*, dijo que Lumière fue, quizás, “el último pintor impresionista”. Como tantas otras veces, Godard pesca en mar abierto con red de arrastre. Los obreros que salen de la fábrica en la famosa imagen iniciadora de la historia del cine no es que se conviertan en actores, como señaló Didi-Huberman, pasan a ser pinceladas de impresión. Presos de una impresión de conjunto en relación inversamente proporcional a la impresión de soledad de quien les observa. *Rear Window*. Sádica impresión.

Con todo, nada en la vida es nunca exactamente así. Tampoco esto. Al fin y al cabo, hablamos de impresiones, es decir, de un facto, un efecto y un afecto en la forma conjunta de un golpe. Una experiencia del encuentro que marcha siempre al ritmo de una batuta ciertamente ilusoria. Así, los modos que acompañan toda impresión y por los cuales nos sentimos en soledad en relación a un grupo que concebimos compacto (o nos sentimos en grupo en relación a un otro que percibimos en soledad) suponen una operación de cautela no ya tanto para con ese otro al cual constituir (o instituir) en algún grado de proximidad (una distancia), sino para con nuestra propia posición en el entramado siempre complejo de la vivencia. Creer para ver. Querer para vivir.

**TABAKALERA**

